

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2023ko uztaila / 340. zenbakia

www.oñati.eus  



BEITA

XUP! taldearen websaileko atal guztiak ikusgai daude
jada Gaztea irratia ren youtubeko kanalean





UDALBATZA BERRIA PREST

Udala gidatuko duten 17 zinegotziek kargua hartuta, Izaro Elorza hautatu dute alkate EH Bilduren 11 ordezkarien aldeko botoz. EAJko 6ek zuri bozkatu dute.

Ekainaren 17an egin zen udalbatza berria eratzeko osoko bilkura berezia eta, espero bezala, Izaro Elorza izendatu zuten alkate, maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan EH Bilduk lortutako gehiengo osoaren babesarekin.

Hamazazpi zinegotziek karguaren jabetza hartzeko legezko tramitea beteta ('Legeak hala behartuta zin dagit edo agintzen dut' formula erabili zuten konstituzioa errespetatuko dutela zin egiteko), alkatea aukeratzeko bozketa egin zuten. Izaro Elorzak EH Bilduko hamaika zinegotzien botoak jaso zituen eta EAJko sei ordezkariak zuri bozkatu zuten. Udalbatza berrian adinez nagusia den Idoia Aierberen eskutik jaso zuen zumitzezko txibita alkateak, batzar aretoa betetzen zuten herritarren txalo artean. Ondoren, alkate doinuarekin batera kontzejupera jaitsi zen korporazio berria eta ohorezko aurrekuarekin egin zieten ongietorria bertan bildutako herritarrek.



Herritar asko batu ziren udaletxeko areto nagusian.

Demokrazia aldiko alkateak Oñatin



Eli Galdos
1979 - 1991



Angel Iturbe
1991 - 2003



Andoni Gartzia
2003 - 2006



Lourdes Idoiaga
2006 - 2011



Mikel Biain
2011 - 2019



Izaro Elorza
2019 -

BI UDAL TALDE



» **IZARO ELORZA / EH BILDU**

"Prest eta gogoz gaude herri berdinzale bat lortzeko bidean sakontzeko, eta zuekin danokin bidea egiten jarraitzeko"



Eskerrak emanez hasi zuen bere hitzaldia Izaro Elorzak alkate makila hartu berrian. Bere senide gertukoentzat izan ziren aurreneko esker oneko hitzak, eta gogoan izan zituen baita ere azken lau urteetan bere alboan lanean aritu diren herritar guztiak. "Eskerrak berriz ere alkate izateko aukera eta babesa eman didazuelako. Badakizue bidea ezin dela bakarrik egin. Bidelagun ezinhobeak izan ditut eta izango ditut".

Eskerrak eman zizkien, baita ere, orain arteko zinegotzietan, hurrengo lau urteetan izango direnei, isileko lana egin ohi duten udal langileei, EH Bilduko herrigintzako lantaldeari eta, nola ez, EH Bilduren politika egiteko modua babestu duten herritar guztiei.

Oposizioko buruak eskainitako elkarlana aintzat hartuko duela esan ostean, politika aurrerakoian, eraldatzailean, gardenean eta justuan sinisten duela adierazi zuen alkateak. "Sortzeko, ahalduzko, ilusioa pizteko, komunitatea indartzeko, eraldatzeko eta justizia soziala bilatzeko baliagarria den politikan sinisten dut, eta bide horretan jarraitu nahi dugu herria eta Udala eramaten. Proiektuak eta ereduak. Helburuak eta egiteko modua".

Datozen lau urtetako erronkei aurre egiteko gogotsu eta indartsu daudela adierazi zuen Izaro Elorzak. "Prest nago nere taldea gidatzeko, Udala bera gidatzeko, herriaren eta herritarren onura bilatzeko. Herri eta udal berdinzale bat lortzeko bidean sakontzeko konpromisoa hartzen dut eta, ildo horretan, hemen izango nauzue zuen kezka entzun, proposamenak jaso edo zalantzak argitzeko".



» **AMAIA EROSTARBE / EAJ-PNV**

"Oposiziotik herriaren alde lana egiteko konpromiso irmoa eta, ahal den neurrian, elkarlanerako borondatea dugu"



EAJk ez zuen alkatetzarako hautagaitzarik aurkeztu udalbatza eratzeko bilkura berezian, baina jeltzaleen bozeramale Amaia Erostarbek hitza hartu zuen bozketa egin aurretik.

Eskerrak eman zizkien, lehenik, maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan EAJren zerrendari botoa eman zieten herritar guztiei, eta zoriondu egin zuen Izaro Elorza, hainbat eta hainbat oñatiarren babesa lortu duelako.

Oposiziotik herriaren alde lan egiteko konpromiso irmoa berretsi zuen Erostarbek. "Gure taldeak sei zinegotzi ditu eta gure konpromiso sendoa erakutsi nahi dut herriaren alde, herri honetako pertsonen alde lana egiteko. Lan horretan pisu handia izango du herritarrekiko entzute aktiboak eta parte hartzeak".

Errespetua ere eskatu zuen oposizioko buruak; errespetua EAJren sei zinegotzienganako, beraien senideenganako, eta alderdikide edo alderdiaren inguruan dabiltzan pertsonen artean ere. "Guretzat ezinbestekoa da hori", azpimarratu zuen Erostarbek. "Errespetua da bizikidetzaren oinarria dagoen jokabidea, eta oso oso garrantzitsua da herri honetan horren aldeko urrats sendoak ematea".

Azkenik, elkarlanerako prestutasuna eta borondatea adierazi zuen EAJko eledunak. "Badakigu bi mundu garela, gure mundu ikuskera askotan ez dela berdina, baina ahal den neurrian, behintzat, elkarlanean aritzeko borondatea eta gogoia izango dugula adierazi nahi dut".

Maiatzeko udal hauteskundeetan EAJri babesa eman zioten herritarrei beste behin eskerrak emanez amaitu zuen jeltzaleen udal taldeko buruak.

HAMABOST LAN BATZORDE izango ditu udalbatza berriak

OGASUNA



Batzordeburua:
XABIER IGARTUA

PERTSONALA



Batzordeburua:
IZARO ELORZA

HIRIGINTZA



Batzordeburua:
IÑIGO RUIZ

ZERBITZUAK



Batzordeburua:
XABIER IGARTUA

Udalaren jardunerako oinarrikoak diren hainbat erabaki hartu zituen udalbatzak ekainaren 29ko ez-ohiko osoko bilkuran. Hala, 2023-2027 agintaldian udalak 15 lan batzorde izango dituela onartu zen, orain arte baino bi gehiago. Aurreko agintaldian *Zerbitzuak* eta *Landa Garapena* arloak batzorde berean zeuden, eta orain bereizi egin dituzte. Bestalde, *Sozioekonomia* arloan txertatuta zegoen *Turismoak* batzorde propioa izango du orain.

Lan batzorde edo batzorde informatibo iraunkor hauek astero edo bi astean behin elkartu ohi dira, lan kargaren arabera, eta udaletxean ordezkatuta dauden bi talde politikoetako ordezkariak parte hartzen dute. Batzorde hauek aztertzen diren gaien inguruko erabakiak Gobernu Batzordean edo Osoko Bilkuran hartzen dira.

GOBERNU BATZARRA

Alkatearekin batera, Tokiko Gobernu Batzarra osatuko duten EH Bilduko bost zinegotzien (Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Iñaki Olalde, Lierni Altube eta Anik Zubizarreta) izendapena ere egin zen ekaineko osoko bilkuran. Eta zinegotzi horiek berak izango dira, hurrenkera berean, alkateordeak hasi berri dugun agintaldian.

LANDA GARAPENA



Batzordeburua:
XABIER IGARTUA

INGURUMENA



Batzordeburua:
IKER OÑATE

BERDINTASUNA



Batzordeburua:
IZARO ELORZA

PARTAIDETZA



Batzordeburua:
ANIK ZUBIZARRETA

ONGIZATEA



Batzordeburua:
LIERNI ALTUBE

TURISMOA



Batzordeburua:
XABIER IGARTUA

KULTURA



Batzordeburua:
IÑAKI OLALDE

GAZTERIA



Batzordeburua:
EKHIÑE MENDI

KIROLA



Batzordeburua:
SAIOA ARKONADA

SOZIOEKONOMIA



Batzordeburua:
IDOIA AIERBE

EUSKARA/HEZKUNTZA



Batzordeburua:
ASIER LAUZURIKA

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Exebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzasuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

“GIGAK PARTEKATUZ AURREZTEKO TARIFA”



FIBRA 300Mb

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HILEAN

2º LINEA MUGIKORRA
GB PARTEKATUZ
+3 €/HILEAN

KONTRATATU HEMEN:

 **LIZKER**
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



BEZa barne. Doako instalazioa, 3 hilabetez egon behar duena. Gehitu linea gehigarriak hilean 3 €-tik aurrera eta aukeratu zure GB linea nagusiarekin eta gainerako linea mugikor gehigarriekin partekatu nahi duzun. Gehienez ere 3 euroko lerro gehigarri bat eta kontratu bakaltzeko beste hiru lerro gehigarri. Kantsultatu gainerako baldintzak salmento-puntuuan.

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS

Amaitu dira Olapoto basoko egokitzapen lanak

Herritarrei basoak eskaintzen duen lasaitasunaz eta freskuraz gozatzeko aukerak eskaintzea izan da helburua



Ondoko argazkietan ikus daitezkeen moduan, amaitu dira Olapoto-Aldakiño basoko egokitzapen lanak. Herrigunetik hurbil dagoen ingurune naturala izanik, herritarrei eguneroko zurrumbilotik aldentu eta basoak eskaintzen duen lasaitasunaz eta freskuraz gozatzeko aukera eskaintzea eta erraztea da bertan egin diren esku-hartzeen helburu orokorra.

Horretarako, lehendabiziko lana bide-sarea egokitzea izan da. Urteko sasoi batzuetan zati batzuk lokaztu egiten zirenez, herritarrek lasai ibili ahal izateko bideak gogortzea izan da aurreneko lana. Gainera, puntu konkritu batzuetan eskailerak eta baranda jarri dira, segurtasun eta erosotasun arrazoiengatik.

Bestalde, anfibioentzako putzutik hurbil argigune bat ireki eta egonleku borobil bat egokitu da, egurrezko eserlekuekin.

AISIALDI GUNEA

Natur eskola ondoan, eta hein batean eraikin honen erabilerekin lotuta, aisialdi gunea bat prestatu da. Mahai eta aulkiak jarri dira bertan, taldeek (herritar nahiz ikastetxeetakoek) jan ahal izateko.


Gainera, aisialdi gunearen ondoan jaisten zen errekatxoa aprobetxatuz, urmael bat egin da eta uretako landareak jarri dira bertan. Horrek freskotasuna eta berdetasuna emango dio guneari.

Ur ibilguak ere konpondu dira. Garai batean Aldakiño inguruko baserritar erabiltzaileek eraikitako ubideak egoera txarrean zeuden eta ez zuten euren lana ondo betetzen. Ondorioz, eurite handiko

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



garaietan urak gainezka egin eta Aldakiñoko bidean behera etortzen zen, hainbat arazo sortuz, higadura batez ere. Ubidea konponduta, urak lehengo bidetik doaz berriz ere.

ZUHAITZ ERAISKETA

Hainbat zuhaitz eraitsi ere egin dira Olapoton. Alde batetik, Sasiakaziak: oso ugariak ziren eta leku askotan zahartuta erortzen ari ziren. Horregatik, batez ere, bideetatik hurbilen zeudenak eraitsi egin dira. Beste arrazoi bat, bertako espezieei lekua eta argitasuna ematea izan da.

Haritz amerikar batzuk ere moztu dira, hauen izaera inbasorea dela eta. Insignis pinu heldu bat ere bota da Aldakiñon; hilik zegoen eta bidetik oso gertu (dagoeneko hainbat adar eroriak zituen bide aldera).

Bi platano handi ere moztu dira anfibioen putzuan. Hauen hostoak oso gogorak dira, desagiteko zailak, eta putzuan pilatzen zirenean bertako uraren oxigenazioan eragin negatiboa zuten.

Bestalde, basoaren mapa erakusten duen panel bana jarri da Olapoto-Aldakiño gune naturalerako hiru sarreretan (Natur Eskola, Olakua eta San Martin). Karobian ere ipini da panel bat, aspaldiko jarduera edo langintza honen inguruko informazioa emateko. ■

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

IKERKETA LANA | EREI ELKARTEA



Ekainaren 14an Donostiako Okendo kultur etxean aurkeztu zuten egindako ikerketa lana Arantzazu eta Miren Zubeldia Plazaola ahizpek (EREI elkarteak).

Iaz Grezian harrapatuak zeuden migratzaileen egoera ezagutzera emateko ikerketa egin zuten Arantzazu eta Miren Zubeldia Plazaola ahizpek (EREI elkarteak) eta aurten Europan harrera-herrialde nagusi diren Alemania eta Frantziara iristen diren asilo eskatzaileen egoera eta hauek dituzten erronka nagusien inguruko azterketa burutu dute. Iaz Grezian elkarrizketatutako pertsona gehienak helburua Alemaniara edo Frantziara iristea zen, eta horregatik aztertu nahi izan dute, bereziki, bi herrialde horietako errealitatea. Horretarako, Paris, Lyon, Rennes, Düsseldorf, Berlin edo Leipzigen bizi diren 18 asilo eskatzaile (10 emakume eta 8 gizonezko) elkarrizketatu dituzte.

Hiru atal ditu EREI elkarteko kideek egindako ikerketa lanak. Lehenengoan, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako errealitate politiko eta sozio-ekonomikoak aztertu dituzte, bereziki Afganistan eta Irangoak, hangoak dire-

lako elkarrizketatutako pertsona gehienak. Kontuan hartu behar da, gainera, 2021ean Europar Batasunean asiloa eskatu zuten pertsonen sor-

terri nagusietako bat (bigarrena, Siriaren atzetik) Afganistan izan zela.

“Afganistango azken hamarkadetakoa historia gerra eta okupazioz josita dago eta, bereziki, Talibanak boterera itzuli direnetik emakumeen eskubideen eta adierazpen askatasunaren murrizketak areagotu egin dira. Emakumeek ez daukate hezkuntzarako eskubiderik, ezin dira kalera bakarrik atera, lan egitea galarazia dute, eta LGTBQ+ kolektiboko pertsonak ere eskubide urraketa larriak pairatzen dituzte. Bestalde, pobrezian bizi diren afganiarren indizea %97ra

igo da, hondamendi naturalek krisi humanitarioa areagotu dute eta, gainera, beldur handia dago (atxiloketa arbitrarioak, torturak, exekuzioak...).

Ihes egitera bultzatzen duten arrazoi asko daude”, adierazi digute.

2022ko datuen arabera, 8 milioi inguru afganiar bizi dira alboko herrialdeetan, horietatik asko Iranen, baina hemengo egoera ere ez da batere erraza afganiarrentzat. “Errepublika islamiarra ezarri zenetik migrazio politikak errefuxiatuentzat gogortzen joan dira eta emakumeek beren eskubideetako asko galdu dituzte. Gogoratu Mahsa Amini gaztearen heriotza. Bestalde, airearen kutsadura eta ur falta nekazal lurren desertifikazioa eragiten ari dira, eta biztanleriaren mu-



«Grezian elkarrizketatu genituen errefuxiatu askoren jomuga Alemania edo Frantzia ziren eta behin horra iritsita bizi duten errealitatea aztertu nahi izan dugu»

**Arantzazu eta Miren
EREI ELKARTEA**

gimenduan gero eta eragin handiagoa duen faktorea da”.

HARRERA-HERRIETAKO ERREALITATEAK

Alemania da errefuxiatu gehien hartzen duen munduko hirugarren herrialdea (Turkia eta Kolonbiaren atzetik). Egun 2,2 milioi pertsona errefuxiatu daude erregistratuta bertan, eta iaz 244.132 pertsonak eskatu zuten asiloa Alemanian.

Eta esan dugun moduan, EREI elkartekoek iaz Grezian elkarrizketatutako errefuxiatu gehienak jomuga ere Alemaniara iristen diren asilo eskatzaileen errealitatea eta erronkak. “Alemaniako kasuan, erregistratzen diren asilo eskatzaileek ostatu hartzeko eskubidea dute harrera zentroetan, baina ostatu kolektibo hauek herri eta hirietatik aparte egoten dira eta horrek bereizketa handia sortzen du”, azaldu dute.

Alemaniera ikastea izaten da asilo eskatzaileen beste erronka nagusietako bat. “Gobernuak ikastaroak

Asilo-eskatzaileen errealitateak harrera herrialdeetan

» Alemaniara eta Frantziara iristen diren errefuxiatuen errealitateen eta erronken inguruko ikerketa egin du EREI elkarteak

eskaini arren, hilabete asko itxoin behar izaten dute ikasten hasteko, eta are gehiago Ukrainako errefuxiatuak iritsi direnetik”.

Emakumezkoek dituzten erronka espezifikoak ere azpimarratu dituzte Zubeldia ahizpek. “Emakumeen eskubideak guztiz urratuta eta genero rolak oso markatuta dauden herrialdeetatik datoz, eta horrek barne gatazkak sortzen dizkie. Harrera herrialdeetan eskubide gehiago dituzten arren, familiaren aldetik presioa dute, eta gizonezkoek baino zailtasun gehiago dituzte gizartean beraien tokia aurkitzeko orduan”.

Frantziako kasuan, asilo eskatzaile gisa erregistratzeko tramiteetan ematen den atzerapena azpimarratzen dute EREI elkarteak. “Bertako legeak dio gehienez 3 egunetan egin behar dela, baina, praktikan, hainbat hilabetez luzatzen da prozesua eta denbora horretan kalean bizitzera beharturik daude errefuxiatuak”. Bestalde, bai Frantzian eta baita Alemaniaren ere gero eta ohikoagoak diren jarrera arrazista eta



Frantzian eta Alemanian egindako elkarrizketa batzuetako, eta Beasaingo institutuan egindako aurkezpeneko irudiak

erreakzionarioak jasan behar izaten dituzte maiz errefuxiatuak.

ERRONKEI AURRE EGITEKO PROIEKTUAK

Ikerketa lana borobiltzeko, harrera herrialdeetan erre-

fuxiatuak dituzten erronkei erantzuteko sortzen dituzten ekimen eta proiektu ezberdinak jaso dituzte Zubeldia ahizpek.

Horieta batzuk (*Afgactivistcollective*, *Wings of Hope*, *34 Afghan Windows...*) jato-

rizko herrialdeetako emakumeen eskubideen alde borrokatzeko helburuarekin sortutako aktibismoak dira. Afganistango emakumeen eskola klandestinoei laguntzea edo beraien sorterrian bizi izandako sarraskiak oroitarazteko helburua dute.

Arazakeriaren kontra borrokatzeko (*Le Cercle Persian*), Europako muga-politika salatzen (*Why/Borders*), klima aldaketak migrazio fluxuetan duen eraginaren inguruan kontzientzia kritikoa sortzeko (*Refugees For future*), edota kultura ezberdinen arteko bizikidetzat sustatzeko (*Yadu-Yoga*) proiektuak ere badaude tartean.

Arantzazuk eta Mirenek burutu duten ikerketa lanaren laburpentxo bat baino ez da hau. Laster, uztailearen erdi aldera, txosten osoa irakurtzeko aukera izango dugu ereielkartea.org webgunean.

Orain, egindako lanari ahalik eta zabalkunde handiena eman nahi diote Zubeldia ahizpek. Duela hiru aste Donostiako Okendo kultur etxean aurkeztu zuten eta, gainera, Oñati, Beasain eta Oreretako ikastetxeetan ere egon dira gaiaren inguruko lanketak egiten DBHko ikasleekin. ■



"Eltzia tabernak nortasun berezia du. Taberna hau herriarena da, eta ahalegina egingo dugu herritarrek hala senti dezaten, nortasun horri eutsi eta, ahal den neurrian, indartzuz"

GERMAN MIRASSOU

Arduradun berria

Eltzia tabernak uztailaren 14an zabalduko ditu ateak

» German Mirassouk kudeatuko du zerbitzua

Udalak deitutako esleipen prozesua amaituta, uztailaren 14an irekiko ditu ateak berriz ere Eltzia taberna-kafetegia. Lau izan dira udalak egindako deialdira aurkeztutako proposamenak, eta bakoitzaren eskaintza tekniko eta administratiboak baloratu ostean German Mirassouren aldeko ebazpena egin du Kontratazio Mahaia. Uztailaren 10ean sinatuko dute kontratua —bi urterako, beste bi urtez luzatu ahal izango dena— eta azken orduko ustekaberik ez bada, hilaren 14arekin batera irekiko ditu ateak Eltzia tabernak. Hileroko errenta 740 eurotan finkatu da.

Argentinako Berazategui hirikoa sortzez, German Mirassou orain dela 18 urte iritsi zen Oñatira eta esperientzia luzea du ostalaritza arloan —Oñati eta Helmuga tabernak kudeatu izan ditu, besteak beste—, eta ilusioz gainezka

dago Eltzian hastera doan etapa berriari ekiteko.

Astelehenetik igandera, 08:30-22:30 egongo da zabalik —astelehen arratsaldetan izan ezik—, eta tabernaz gain, sukalde zerbitzua ere eskainiko du. "Pintxoak, plater konbinatuak eta errazioak emango ditugu, eta, tarteka, sasoiak sasoiko produktuz (arkumea, odolosteak...) egindako menu bereziak ere prestatuko ditugu, enkarguz", azaldu digu Germanek.

EKONOMIA ZIRKULARRA

Ahal den neurrian, Oñatiko eta inguruetakoko produktuak erabiliko ditu sukaldean. "Bai, ekonomia zirkularren alde gure aletxoak jarri nahi dugu, herrian ditugun aukerak baliorez jarriz eta sentsibilizazioa landuz herritarren artean".

Ildo berean, tarteka Oñatin eta inguruetakoko produktuen (txakolina, gazta,

esnekiak...) inguruko ekitaldi gastronomikoak antolatzeko asmoa ere badu, eta kultur ekitaldiak ere —kontzertuak, erakusketak...— ez dira faltako Eltzia tabernan. Hasteko, DJ Harka-k girotuko du tabernaren irekiera ekitaldia.

NORTASUN BEREZIA

Germanek oso argi dauka Eltzia taberna berezia dela, nortasun berezia daukala, eta horri eusten ahaleginduko da. "Taberna hau herriarena da eta horrek bereizten du beste tabernetatik. Horregatik, ahalegin berezia egingo dugu nortasun horri eusteko eta, ahal dela indartzeko". Ildo horretan, Eltziako talde eta kolektiboekin elkarlanean jardun nahi du, elkarren arteko sinergiak baliatuz. "Ziur nago martxan jarri ahala ideia eta proiektu asko sortuko direla". @ELTZIATABERNA izenez sortu dituen Instagram eta Facebook kontuetan emango du guztiaren berri. ■



» ORDUTEGIA

Astelehenetik igandera **8:30etatik 22:30etara** egongo da zabalik Eltzia taberna, astelehen arratsaldetan izan ezik

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Bereaz Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

Emakumion Etxiak izango duen barne antolaketaren aurkezpena egingo da uztailaren 12an

Herritar guztiei irekitako saioa izango da, Eltzian (18:30)

Oñatiko Emakumion Etxiak dagoeneko sustrai sendoak errotu dituela esan daiteke. Etxeak izango dituen barne espazioen antolaketa erabakitzeko antolatu diren hiru saioetako azkena egin zen ekainaren 21ean, eta bertan hartutako erabaki eta jasotako ekarpenekin proposamen definitibo osatuko du *Juntura* arkitekto taldeak, eta uztailaren 12an egingo den saio irekian aurkeztuko du.

Etorkizunean etxeak izango duen erabileran barne espazioen banaketak duen garrantziaz jabetuta, Emakumion Etxiaren barne antolaketa erabakitzeko hiru saio egin dira parte-hartze prozesuaren baitan, eta ekaineko azken saioak aurreko bietan adostutako premisak berretsi eta zalantza gehiago sorrarazten dituzten puntuak argitzeko balio izan zuen.

Etxeak izango dituen hiru solairuen irekiera edo publikotasunaz hitz egin zen, espazio irekiagoak eta pribatagoak edo intimoagoak bereiztu ziren, eta horren arabera antolatu dira espazioak. Etxearen dinamizazioaz ere hitz egin zen, eta



harrera-bulegoaren beharraz.

SUKALDEA EZTABAIDAGAI

Erabilera anitzeko gelak, zerbitzuetarako bulegoak, egoteko espazioak, eta sormen gunea ere irudikatu dituzte, bai eta sukalde bat ere. Azken hau izan da eztabaida gehien sortu duen gaia, hain zuzen. Kokalekuak, batetik, eta izan beharko lukeen pribatutasun edo publikotasun mailak bestetik, sozializatzeko eta ahalduzko espazio interesgarria izan daitekeelako askoren iritziz.

Espazioak estankoak ez izateko ahalegina egin da, eta ez dira helburu edo erabilera bakar batera lotuko; momentuaren eta beharren arabera modu batera edo bestera erabiliko dira. Horretarako, altzari eta elementu mugikorrek planteatzen dira, intimitatea edota akustikoki moldatzeko aukera eskaintzen dutenak.

Esan bezala, azkeneko saioko ekarpenak jasota, herritar guztiei zuzendutako aurkezpen irekia egingo da uztailaren 12an (Eltziako 3. solairuan, 18:30) etxeak izango duen barne antolaketa azaldu eta hurrengo pausoen berri emateko.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Alzheimerrari AURRE

Udalak eta AFAGI elkarteak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsoneri eta familiei laguntzeko. Irailean **estimulazio kognitiboko tailerra** jarriko da martxan Oñatin.



Iñaki Olalde, AFAGIko presidentea, eta Izaro Elorza, alkatea, lankidetzaz hitzarmena sinatzen

Alzheimerra eta bestelako dementziek herritarren artean sortzen dituzten kezka eta beharrei erantzuteko asmoz, Oñatiko udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu du AFAGI elkartearekin.

Sindrome neurodegeneratiboren bat duten gaixoei eta hauen senide eta zaintzaileei laguntzeko lanean diharduen Gipuzkoa mailako elkarte da AFAGI.

1991n sortu zen AFAGI, arlo honetan zeuden hutsune eta gabeziei erantzuteko asmoz, eta 32 urteko ibilbidean zabalduz joan da bere eragin eremua Gipuzkoan barrena. Donostian du egoitza nagusia elkarteak, baina Zarautzen, Tolosan, Ordizian, Eibarren, Errenterian eta Arrasaten ere ematen du zerbitzua eta, orain, Oñatin ere irekiko du bulego bat, udalarekin adostutako hitzarmenari esker. "Beharrezkoa ikusten dugu era honetako arreta eta zerbitzua Oñatin bertan ematea, herritarrek dituzten beharrei

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

"Beharrezkoa iruditzen zaigu era honetako zerbitzua Oñatin bertan ematea, herritarren beharrei erantzuteko eta beste herri batera joan-etorrian ibili beharrik ez izateko"

IZARO ELORZA
Alkatea

"Gipuzkoan 13.000 pertsonak dute dementziaren bat, eta hauen senide eta zaintzaileak kontuan hartuta, 50.000 pertsonari eragiten die zuzenean. Datozen urteetako pandemiaren aurrean gaude"

IÑAKI OLALDE
AFAGIko presidentea

erantzuteko eta beste herri batera joan-etorrian ibili beharrik ez izateko", adierazi du Iزارo Elorza alkatea. Ildo horretan, Elorzak zoriondu egin zuen AFAGI elkarteak, egiten duen lanagatik, eta animatu egin zituen herritarrek babes eta laguntza sare bat osatu eta aktibatuz.

XXI. MENDEKO PANDEMIA
Irabazi asmorik gabeko elkar-

tea da AFAGI, eta bere helburua da alzheimerria edo bestelako dementziaren bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea eta baita beraien senide-zaintzaileena ere.

Ildo horretan, dibulgazio eta sentsibilizazio lana egiteaz gain, laguntza psikologikoa eta aholkularitza eskaintzen du arlo legal, ekonomiko eta asistentzian, eta bizi-kalitatea hobetzeko terapia eta bestelako jarduerak ere eskaintzen ditu AFAGIk.

Iñaki Olalde oñatiarra da, egun, AFAGIko presidentea, eta berak emandako datuak nahikoa esanguratsuak dira. Gaur egun dementziaren bat duten 13.000 pertsona daude, gutxi gora behera, Gipuzkoan, eta hauen senide eta zaintzaileak kontuan hartuz, 50.000 pertsonari eragiten die zuzenean gaitzak. "Bizi-itxaropenak gora egin ahala eta gizarteak zahartu ahala, gero eta ohikoagoak dira gainbehera kognitiboak, eta garbi dago datozen urteetako pandemia izango dela", adierazi zuen Olaldek. AFAGIko presidentek eskerrak eman dizkio Udalari, elkarlanerako erakutsi duen prestutasunagatik.

Udalak eta AFAGIk sinatu duten lankidetzaren hitzarmenak hiru urteko indarraldia izango du, 2026ko uztailean arte, eta Oñatiko udalak 38.886 euroko ekarpena eta bestelako baliabideak jarriko ditu AFAGIren esku, gure herrian eskainiko duen jardueraren proiektuak garatzen laguntzeko.

Aholkularitza zerbitzua eta estimulazio kognitiboko tailerra irailetik aurrera

Lankidetzaren hitzarmena orain sinatu bada ere, AFAGI elkarteak irailarekin batera hasiko da lanean Oñatin. Iraila hasieran komunikazio kanpaina bat egingo da herrian, AFAGI elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuen eta Oñatiko udalarekin hitzartu duen lankidetzaren proiektuaren helburuen eta nondik-norakoaren berri emateko. Hitzaldi bat, kontzertu bat eta oraindik guztiz lotu gabe dagoen beste ekitaldiren bat antolatuko dira helburu horrekin. Aurrerago emango dute xehetasun gehiago.

ARRETA PSIKOSOZIALA

Udalak eta AFAGIk adostu duten proiektuak bi fase izango ditu. Alde batetik, Arreta Psikosoziala eskainiko da. Herritarrei zuzendutako banakako zerbitzua izango da (oraindik ez dute azaldu non eskainiko den), eta dementziaren bat duten pertsonen senideei laguntzea eta dauden baliabideen inguruko informazioa ematea izango da helburua. Gainera, gaitza duten pertsonen balorazioa ere egingo da, Oñatin martxan jarriko den estimulazio kognitiboko tailerrean parte hartu ahal izango duten pertsonak detektatu edo identifikatzeko.

ESTIMULAZIO KOGNITIBOKO TAILERRA

Galera kognitibo arina duten pertsonen zuzendutako tailerra izango da, alzheimerria edo beste dementziaren bat hasierako fasean duten herritarrentzat.

Astean bi egunetan emango dira tailerrak, eta ordu eta erdiko saioak izango dira. Tailer hauen helburua izango da pertsona horiek mantentzen dituzten funtzio kognitiboak estimulatzea eta ukituak edo galtzen hasiak diren funtzioak lantzea, ahal den neurrian babesteko. Azken batean, pertsona bakoitzaren gaitasun funtzionalak landuko dira tailerrean, beraien autonomia ahalik eta luzaroen mantendu ahal izateko.

Horretarako, ariketa mota ezberdinak egingo dira tailerrean: funtzio kognitiboak (oroimena, lengoaia, arreta, orientazioa...) mantentzeko eta indartzeko ariketak, gaitasun funtzionalak (garbitasun pertsonala, elikadura...) lantzea helburu dutenak, jardueraren instrumentalak (diruaren edo telefonoaren erabilera, laguntza eskatzea...) ere landuko dira, eta baita baita harreman sozialak ere. ■

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Txiki-Txoko haurreskolak gela bat gehiago izango du irailetik aurrera

Horrenbestez, 0-2 urte arteko 55 haurrentzako lekua egongo da herriko haur eskola publikoan



Jatorrizko eraikin nagusian egokituko dute 1-2 urtekoentzako gela berria

Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritzaren aldeko irizpena jasota, datozen egunetan hasiko dira Txiki-Txokon gela berria egokitze lanak, irailerako prest egon dadin.

Azkenaldian matrikulazioek nabarmen gora egin dute Txiki-Txokon, eta ikusirik irailan seme-alabak bertara eramateko interesa agertu duten familiak kanpoan geratzeko arriskua zegoela, udalak gela bat gehiago irekitzeko baimen eskaera luzatu zion Haurreskolak Partzuergoari.

Gaur egun lau gela daude Txiki-Txokon. Horietako bi 0-1 urteko haurrentzat dira eta 8 ume sartzen dira gela bakoitzean. Beste bi gelak 1-2 urteko haurrentzat dira eta hauetako bakoitzean 13 haur sartzen dira, gehienez.

Amaitu berri den ikasturtean 0-1 urteko bi gelak beteta egon dira Txiki-Txokon, eta 1-2

urtekoetan 18 haur ibili dira, baina irailera begira izena emanda dauden haurren kopurua kontuan hartuz, hauetako batzuk plaza barik geratuko liriteke egungo baldintzetan, eta ikusirik Txiki-Txokoko eraikinaren alde zaharrea gela berri bat egokitze aukera dagoela, Udalak 1-2 urteko haurrentzako unitate berria irekitzeko eskaera luzatu dio Haurreskolak Partzuergoari.

Gela berria egokitze lanak Andrea Azkoagak idatzitako proiektuaren arabera egingo dira 36.271 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin. Udalak hartuko du bere gain obraren kostua, eta Partzuergoaren kontura izango dira gela berrirako beharko diren baliabide pedagogikoen eta hezitzaileen kontratazioaren kostua.

LANPOSTU DEIALDIA

Elektrikari laguntzailea kontratatzeke deialdia egingo du Oñargik

Oñargi S.L.-k, Oñatiko udalaren enpresak, elektrikari laguntzailea kontratatu nahi du. Bere egitekoa izango da, besteak beste, bezeroen barne instalazioaren ikuskaritza, telekomunikazio azpiegituraren mantentzea eta teleneurketa kontagailuen ikuskaritza.

BALDINTZAK

Lanpostura aurkezteko baldintzei dagokienez, elektrizitateko bigarren mailako lanbide heziketako titulua, edo sareko informatika-sistemen administrazioko goi mailako teknikari titulua edo baliokidea izatea eta euskara jakitea eskatzen da, besteak beste. Oñargik urtebeterako kontratua eskaintzen du, luzatzeko aukerarekin. Lanjardun osoan arituko da langile berria. Oñargirekin harremanetan jartzeko: 943780708 / onargi@onargi.eus



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

**Gezalaga
Margoak**

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Hezetasun arazoa konpondu eta urbanizazioa berritzeko lanak egingo ditu Udalak Urgainen

Ikasturtea amaitzearekin batera, hezetasun arazoak konpondu eta urbanizazioaren zati bat berritzeko lanak hasiko dira Urgain eskolan.

Lehenago ere egin izan dira ur filtrazioak eta hezetasun arazoak konpontzeko lanak Errekaldeko eskolan, eta neurri handi batean konpondu badira ere, sotoko gela batean, mendi aldera dagoen aldagelan, hezetasun arazoak dituzte oraindik ere, eta horiei behin betiko konponbidea ematea da orain egingo diren lanen helburua.

Horretarako, ezinbestekoa ikusten da aldagela gainean gelditzen den eremua egoki inpermeabilizatzea, eta eraikinaren ekialdeko fatxadaren kontra terraza funtzioa betetzen duten eremuak ere inpermeabilizatzea. Gainera, lanok aprobetxatuz, euri uren hoditeria fatxadatik oinezkoen pasabidearen kontrako aldera eramango da, eta eraikinak eta lurrak bat egiten duten gunea babesteko sarea jarriko da eta arlauzak berrituko. Ikastetxearen sarbidea Bagabiltz proiektuaren helburuetara egokitzeko lanak gauzatuko dira, oinezkoen sarrera segurua bermatzeko.

Lanak Construcciones Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu 94.878 euroko (gehi BEZ) aurrekontuarekin, Aitziber Izura arkitekto teknikoak idatzitako proiektuaren arabera, eta 12 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko. Uztailaren 3an hasiko dira lanak.



Goiko irudietan erakusten da ikastetxeko zein gunetan egingo diren lanak

Ugarkalde	Eroski	Anbulategia	Korreos	Kasablanka	Usako (Zuazola)	Korreos	Parrokia	Errekalde	Otakua	Ugarkalde
16:00	16:05	16:08	16:10	16:15	16:20	16:25				16:28

C LINEA										
Ugarkalde	Errekalde	Parrokia	Korreos	Usako (Zuazola)	Kasablanka	Korreos	Anbulategia	San Martin	Otakua	Ugarkalde
19:30	19:38	19:40	19:40	19:45	19:50					20:00

HERRIBUSaren 16:00eta 19:30etako zerbitzuek Usakoko joan-etorria egiten dute

Tamalez, E.coli bakterioaren kontzentrazio altuaren ondorioz Usakon bainatzea debekatuta egon da azken asteetan, baina, gogoratu bainu denboraldiak dirauen bitartean HERRIBUS-ak Zañartuko joan-etorria egingo duela egunean bi aldiz. Zehazki, 16:00etako (B linea) eta 19:30etako (A linea) zerbitzuak dira Zuazolako zubiraino joaten direnak. Goiko taulan ikus daiteke zein ibilbide eta ordutegi duen zerbitzu bakoitzak. Zerbitzu berezi hauek ekainaren 12tik abuztuaren 4ra eta abuztuaren 28tik irailaren 8ra egongo dira indarrean.

Espero dezagun, beraz, lehenbailehen baimendu ahal izatea bainua Usakon. Osasun Publikoak astelehenero hartzen ditu ur laginak uraren kalitate maila neurtzeko.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Antxintxika Triatloi Egokituko sailaren eredia hizpide izan da Toledoko ospitalean

Antxintxika Triatloi Egokituko taldea egiten ari den lan bikainaren oihartzuna hemendik kanpora ere iritsi da eta, hala, Toledoko lesio medularren ospitalera gonbidatu dituzte hitzaldia ematera, jarduera fisikoak mugikortasuna mugatua duten pertsonengan eragiten duen onuraren inguruan. Ekainaren 12an izan ziren betan Aitor Rementeria eta Joseba Azkarate, taldearen sortzaileak.

Gogoratu, bestalde, IkerGazte-2023 jardunaldien baitan ere Antxintxika klubaren inguruan egindako ikerketa lanaren



emaitzak aurkeztu dituztela berriki. Garun paralisia edota menpekotasuna duten pertsonen jarduera fisikoa egiteko dituzten aukerak, motibazioak eta oztopoak izan zituzten aztergai, besteak beste.

Udaldiaz familian gozatzeko 7 plan

HERRIGUNE HISTORIKOAN

TURISMO BULEGOA ETA SAN MIGEL ERROTA

Egunero zabalik: 9:30-14:00 / 15:30-19:00

Ezagutu Euskal Herriko lehen unibertsitatea (Sancti Spiritus), Euskadiko Errenazimentuko adierazgarri onena, eta San Migel parrokia, XIV-XIX mendeetan zehar Gebara familiaren boterea irudikatzen duena. **Bisita gidatuak.** Erreserbak: 943783453

TXOKOLATEIXIA

Oñatiko txokolate-tradizioa eta -historia ezagutzeko aukera eta salmenta puntua. Bisita gidatuak: 'Kakaoaren bidaia, Amerikatik Oñatira'. Erreserbak: 605763595

NATURA

ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBIA

(10:00-14:00 / 16:00-18:00)

Gipuzkoako kobazulo sistema zabalena, Euskal Herriko paisaia karstikoaren erakusle paregabea. Mendez mende urak harkaitzean zizelkatutako barrunbea,

balio espeleologiko eta paleontologikoetan aintzindaria. Arrikruzteko lehoia da bertako aurkikuntzarik garrantzitsuenak. **Bisita gidatuak** Erreserbak: 943082000/arrikruz@onati.eus

GOMIZTEGI BASERRIA

Gazta salmenta eta baserrira bisita. Erreserbak: 943251008 / info@gomiztegi.com

POTTOKALEKU, EUSKAL ZALDIA

'BIZI POTTOKA' bisita gidatuak erreserbapean: 670274461 / jelorzarza@hotmail.com

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Ingurune ikusgarrian kokatua, abangoardia artistikoaren erakusle da Arantzazu (Oteiza, Txillida, Basterretxea...). **Bisita gidatuak.** Erreserbak: 943796463

ARANTZAZUKO PARKETXEA

(10:00-14:00 / 16:00-18:00)

Aizkorri-Aratz parke naturaleko interpretazio zentroa. Erreserbak: 943782894 / arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net

UDAKO ORDUTEGIA KIROLDEGIAN

Hauxe izango da kiroldegiko ordutegia uztailea-abuztuaren:

UZTAILEAN

- Asteleheneetik ostiralera 7:30-21:30
- Asteburu eta jai egunetan 9:00-20:00

ABUZTUAN

- Asteleheneetik larunbatera 10:00-20:00
- Igandeak ITXITA

UDAKO ORDUTEGIA UDAL LIBURUTEGIAN

UZTAILEAN

- Helduen liburutegia Asteleheneetik ostiralera 10:00-13:00 eta 16:30-20:00 Larunbatetan ITXITA

- Haurren liburutegia ITXITA (*)

ABUZTUAN

- Helduen liburutegia Asteleheneetik ostiralera 9:30-13:30 Larunbatetan ITXITA

- Haurren liburutegia ITXITA (*)

(*) Helduen liburutegian txoko bat egongo da haur liburutegiko hainbat liburu eta DVDrekin.

XVI. mendeko txaluparen txokolatezko erreplika Oñatin ikusgai

Gozoa elkarteko artisau gozogileek XVI. mendeko baleontzi baten txokolatezko erreplika egin dute, Albaola faktoriako teknikoen laguntzarekin. 8 metro luze eta 2 metro zabal ditu ontziak, eta laster bisitatzeko aukera izango dugu Ibarra zelaian dagoen artxibo historiko probintzialean.



Joan den astean ekarri zuten txalupa Oñatiko artxibora

Boluntarioria saria Azpiazurentzat

Javier Azpiazuk, Aloña Mendiko futbol saileko presidenteak, Boluntarioria Saria jaso zuen ekainaren 9an Andoainen egin zen Gipuzkoako Futbolaren Galan. Gipuzkoako futbolaren alde modu altruistan egindako lana aitortu eta eskertu nahi izan du federazioak sari honen bidez. Gogoratu, Azpiazuk ia 50 urte daramala Aloña Mendiren alde lanean. Zorionak!



Bi oñatiar Diputatuen Kongresurako hautagaien artean



Ekainaren 21ean argitaratu ziren BOEn uztailaren 23an egingo diren Diputatuen Kongresurako nahiz Senaturako hauteskondeetarako hautagaitzak, eta Gipuzkoako zerrendetan bi oñatiar azaltzen dira: Maialen Urzelai Azpiazu eta Larraitz Ugarte Zubizarreta. Biak ala biak EH Bilduren kongresurako zerrendan agertzen dira, Urzelai hirugarren tokian, eta Ugarte laugarrenean.

Gipuzkoak sei diputatu hautatuko ditu. Aurreko legealdian Gipuzkoa ordezkatzeko bina diputatu lortu zituzten EH Bilduk eta EAJk, eta bana PSE-EEK eta Podemosek.



Ohi bezala, diploma eta artzain makila jaso zuten ikasleek

Gomiztegiko 26. artzain promozioa

Ekainaren 21ean egin zen Gomiztegiko artzain eskolako 26. ikasturte amaierako ekitaldia. Aurten 10 ikaslek (8 mutil eta 2 neska) osatu dute formazioa bertan.

'Busti zaitez' kanpaina Oñatin

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezalaxe Oñatin ere 'Busti zaitez' kanpaina egingo da uztailaren 9an. Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen eta senideen alde lanean diharduen ADEMGi elkarteko kideek informazio eta salmenta puntua jarriko dute Oñatiko plazan.

'Mari' filma youtuben

Antixena gaztetxeak ekoiztu duen 'MARI, ixilik nahi gaituztenean' filma youtuben (https://youtu.be/_uWYDQkeCqg) dago ikusgai jada.



EGUNEKO
MENUA

Taldeentzako
menuak

Gosariak

Afariak



Landutako sukaldaritza Oñati erdigunean

Kalitatea eta bezeroarekiko arreta berezia

Herriko ostalaritzan eskarmentua handia duen lan-taldea gara. Astelehenetan izan ezik, egunero izango duzu gure etxean momentu berezi bat igarotzeko aukera.

ONGI-ETORRI

Bidebarrieta 8 • T. 943 71 62 96 • @

Sogorri
Taberna
eta Jantokia



afariak soilik ostegunetik larunbatera ematen ditugu. Igandetan, egun osoan zabalitzen dugun arren, bazkariak soilik eskaintzen dira.

Oroitzapenez eta emozioz betetako eguna

» 300dik gora lagun bildu ziren ULMAren erretiratuen egunean

Pandemiak eragindako hiru urteko etenaren ostean — azkena 2019an ospatu zen — erretiratuei eskainitako omenaldia ospatu zuen ULMA Taldeak ekainaren 9an, eta kooperatibaren 9 negozioetan erretiratutako 300dik gora jubilatuk parte hartu zuten.

Eguna hasteko, bisitak egin zituzten ULMAk Oñatin dituen lantegi ezberdinetera. Lan-kide ohiekin elkartzearaz gain, Zubillagan edo Goribarren irekitako planta berriak ezagutu eta azken urteotan egindako aurrerapen teknologikoak ikusteko aukera izan zuten. Halaber, ULMA Taldearen ikuspegi globalagoa ezagutzeko aukera ere izan zuten, Iñaki Gabilondo zuzendari nagusiak, eta Lander Diaz de Gereñu lehendakariak egindako aurkezpenari esker.

Ondoren kiroldegian elkartu ziren denak bazkaltzera, giro ederrean. Diaz de Gereñuk ongietorria egin zien eta go-raipatu egin zuen han bildutakoek ULMAren alde urte askoan egindako lana. "Zuen konpromisoa eta dedikazioa funtsezkoak izan dira proiektu kooperatibo hau arrakastatsua izan dadin, eta beti jarraituko duzue proiektuaren parte izaten", adierazi zuen.

Bazkalostean dantzarako abagunea ere egon zen, Joseina Etxeberria DJ-aren musikarekin, eta eguna borobiltzeko bi bidaiara zozkatu zituzten, Istanbulera eta Amsterdamanera.



OÑATIKO JUBILATUEN ASTEA

Pake Leku elkarteak antolatuta, herriko jubilatuen astea ospatu zen ekainaren 12tik 18ra. Hitzaldi, ibilaldi, dantzaldi, bingo saio... makina bat ekintza antolatu zituzten, eta astea borobiltzeko Jubilatuen Egun handia ospatu zuten hilaren 18an. Goiko argazkian ikus daitekeen moduan, M^a Pilar Biain eta Andres Agiriano senar-emazteek jaso zuten ohorezko txapela eta zapia udal arduradunen eskutik, herritar guztien izenean. Hilabete berezia borobiltzeko Larrun mendira eta Zugarramurdira egin zuten txangoa herriko hainbat jubilatuk.





Adopzioan emateko katuak ditu OKKE elkarteak

Kaleko katuen kudeaketan udalarekin kolaboratzen duen OKKE elkarteak dei egiten die abandonatutako animaliekin sentsibilizatuta dauden herritarrei. OKKE elkartean argazkikoak bezalako hainbat katu eder eta polit dituzte adopzio arduratsuan emateko, eta katutxo hauentzako etxebizitza-familia bila ari dira.

"Kalean oso gogorra eta motza izaten da katu hauen bizitza eta, beraz, zure esku ere badago katu hauei kaletik irteten laguntzea. Adoptatu katutxo bat eta salbatu bizitza bat. Deskubritu zein maitagarriak diren eta nolako konpañia egiten duten", adierazi dute OKKE elkartekoek. Jarri harremanetan whatsapp bidez (677985411/635748415) edo sare sozialetan (Facebook okke.onati / Instagram okke.onati).

Gimasia erritmikoko kanpusa antolatu du Aloña Mendik

Ikasturte berrira begira, gimnasia erritmikoko kanpusa antolatu du aurreneko aldiz Aloña Mendik. **Abuztuaren 31n** eta **irailaren 1, 4, 5** eta **6an** egingo da, goizez (10:00-13:00) Zubikoa kiroldegian. Gimnasia ari diren, aritu diren edota sekula ibili ez diren LH-4tik gorako neska-mutiko guztientzat dago zabalik. Beroketak, koreografiak eta aparatuak landuko dituzte, eta tailer batzuk ere egingo dituzte: mailloten apainketa, makillajea.... Sorpresak ere izango omen dira. Prezioa: 60€. Izena emateko idatzi mezua: alonamendi.gimnasia2@gmail.com.

Haur eta helduen igeriketa ikastaroetarako izen-ematea

2023/2024 ikasturtean (urritik aurrera) Zubikoa kiroldegian eskainiko diren haur eta helduentzako igeriketa ikastaroetan parte hartzeko asmoa dutenek **uztailaren 5a** baino lehen eman behar dute izena kiroldegiko harreran edo webgunean (zubikoakiroldegia.oñati.eus). Haurren kasuan, adinaren arabera taldeak osatuko dira. Helduen kasuan, igeriketaz gain Aquagym, Matro Igeriketa, Ur Fitness eta Igeriketa Terapeutikoa daude aukeran.



AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Garbiketak
Irrati-uhinen maiztasuna
Liftinga + betileak tintatzea

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

Gorputz birmoldatzailea
Irrati-uhinen maiztasuna
Presoterapia infragorriekin
Elektroestimulazioa

DEPILAZIOAK

Trionda diodozko laserra
Argizaria / Roll-on

MASAJEAK



Bidebarrieta Kalea 11 behe, Oñati



688690141



xarmaestetika1@gmail.com



[xarma_estetika](https://www.instagram.com/xarma_estetika)





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

TXANTXIKU NAPARRA

Naroa Sanz

Batxilergo 1. mailako ikaslea

Txantxikuen herrian jaioa naiz, berez, Zumarragan, baina horrek ez du garrantzirik. Txikitatik Errekaldeko eskolan eta gero Zuazolan ikasi dut, baina eskolan, eh, ez Ikastolan. Hori bai, soilik astean zehar, astebukaera askotan, gurasoen herrira jaisten naizelako. Arguedasen “giputxi” naiz, Oñatin, “nabarrika”, baina nik nik nahi nuen Oñatin “giputxi” eta Arguedasen “nabarrika” izan. Orduan, zer naiz?

Ez dakit. Gaztelania izugarri maite dut, niretzat familia da, “abuela” dudalako, ez amandria, ez “amama”. Baina orduan zergatik dira “ama eta aitta” eta ez “mama y papa”? Nahiz eta gurasoak izan eta ez “padres”, etxean ez dute “alabak” eta “hijas” dute. Horregatik, sasoi baten euskarak beldurra ematen zidan, errazagoa zen beste “hijas” batzuekin denbora pasatzea eta noizbehinka soilik “alabekin” egotea. Gainera, alabek ze polit hitz egiten zuten, ez zuten eta trabarik. Nahi izan ezker, etxekoek bezala hitz egiten zuten eta bestela, eskolako liburuak bezala.

Denborarekin beldur pixka bat joan zait, oraindik ez dakit “giputxia” naizen baina oñatiarra izan nahi dut. Oraingo arazoa ezberdina da. Oñatin “itten” esaten dut eta ez “egitten”, baina “korrika” eta ez “atxintxika”. Batzuetan liburuetan bezala hitz egiten dut, eta alabak direnak ez, haiek Arrasaten nagoenean “erai leihua” diot eta ez “zabaldur leihua”. Arraro begiratzen didate eta batzuetan txantxiku deitzen naute. Ez dakit zein helburu duten baina harrotasunez jasotzen dut.

Euskaraz trabatu ala ez, arraro hitz egin ala ez, niretzat kuttunena gaztelania da, askeago sentitzen naiz, ez dut eta trabarik. Baina euskararekin batera hazi naiz, bihotzaren zati bat lapurtu didalako. “Ein xonat nere bidaia”. Harrotasunez esan dezaket biak naizela bi tokietan, edo edozein lekutan: oñatiarra, giputxia eta nabarrika.

ESKERRIK ASKO OÑATI 'MIGRAZIOA GUZTION ESKUBIDEA' KANPAINA POSIBLE EGITEAGATIK!

Leire Etxeberria, Hotz Oñatiren izenean

Hotz Oñatik 'Migrazioa guztion eskubidea' sentsibilizazio kanpaina egin zuen maiatzean. Kanpaina hasiera emateko 'Kantu eta kolorez migrazioaren alde' ekintza artistiko kulturala ospatu genuen apirilak 29an festa giroan Oñatiko plazan.

Eta maiatzean astero emanaldi edo hitzaldi bat izan genuen kultur etxean.

Kanpaina hau posible egin duzuen guztioi mila mila esker!

-*Artistak*: Roberto Zabarte, Antton Txintxurreta, Iñigo Ugarte, Javi Erostarbe;

-Oñatiko ikastetxeak;

-Mirari Sagarzazu eta DBH 1.mailako ikasleak;

-Pintura tailerreko ume eta gaztetxoak eta tailerreko irakaslea Mayra;

-*Musikoak*: Aiert Alberdi, Koki;

-Olatu solidarioan parte hartu zenuten guztiak;

-*Montajea*: Pablo Miguel Esteban eta Jose Antonio Martínez Beretxinaga.

Emanaldi eta hitzaldietan ponente izan zaretenoi! **Ekintzetara bertaratu zareten herritar guztioi! Eskerrik asko!**

Eskerrik asko baita babesaren eman diguten enpresa, denda eta erakundeak: Gertu, Cartonajes Arregui, Moyua aroztegia, Ulma construcción, Pago-Uso elkarteak, Txanda (Maibi eta Juanitosa), Txantxiku ikastola, Udaletxea, Eltzia...



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

OÑATI, ZERTAN DABILEN HERRIA

Jokin Arroyo

Ni sukaldari izanda, lehenik eta behin Mauxkako Agustini eskerrak eta animo denak helarazi nahi nizkioke, eta hartzen duen bidean zorte ona opa diot. Besarkadarik beroena Patri eta Aiasentzat ere.

Behin hori esanda, Oñatin ostalaritzak eta komertzio txikiak bizi duen egoeraz hausnarketa bat eskatu nahi nizueke. Ni neu ere prest nago nire kontraesanak onartzeko, baina norbere burua aztertu eta bere eskuetan dagoenaren kargu egiteko eskaera egiten dizuet.

Herri aberatsa da Oñati. Pribilegiatuak gara arlo askotan. Baina nola daude negozio txikiak? Ostalariak edota herriko dendak? Gehienak justu justuan irauten! Arraindegiak, haragitegiak, okindegiak galtzeko zorian, ondorengotzarik gabe edota frankizia eta kanpoko inbertsore handien kargu uzten ari gara. Herria hauek gabe gelditzear dagoela konturatzeko ote gara behar den moduan?

Bitartean, desinformazioak jo gaitu, mobillekin itsututa. Gure bazterrez ahaztuta, kultura eta ondarea alboratuta, kirolaren eta itxurakeriaren mendean, edo hurrengo opor egunetan nora joan burua nekatzen. Kriston bizikleta, autokarabana edota 300.000€ko etxea erosteko, eta oporretara joateko dirua badugu. Hori bai, herriko komertzioetan salerosten diren produktuak garesti iruditzen zaizkigu.

Komertzio eta ostalaritza herria sartzeko eta kohesionatzeko baliabiderik onena da. Herria biziberritu eta ezagun zein lagunen arteko elkargunea izaten jarrai dezan, kaleak hutsik eta hilda nahi ez baditugu. Gabinete Caligarik zioen bezala, "No hay nada como el calor del amor en un bar".

Beraz, herritar xume bezala, bertatik eta bertakoengatik bizi eta lan egin nahi duen ostalari bezala, hausnarketa egin eta herria zaintzen jarraitzeko eskaera egin nahi dizuet.

Oñati, herria zaintzen dabilen herria.

TOURRA 2023: IKURRINA ETA TXAPELA

Beñi Agirre Oartzabal, Rafa Santxex Muxika, Iñaki Idigoras Igartua eta beste 19 sinadura

Ikurrina ez da Euskadiko bandera bakarrik, Nafarroako erresumarena Nafarroa Foralarena bakarrik ez den bezala. Ikurrina Luis Aranek asmatutakoa bada ere, ez da aranatarrena, ezta bere jarraitzaileena bakarrik ere. Herri batek beretzat hartzen duen ikurra, herritarrena bihurtzen da, nazioarena. 1894an lehen aldiz marraztua izan zenetik ikurrinak urte luzetan jazarpen politiko ankerra jasan izan du Espainian eta, aldiz, baimendua izan da Frantziako Errepublikan. Behar bada, horregatik ere, ikurrina bada euskalafar guztion bandera.

Nafarroako banderak, katerik gabekoak, erresumaren antzinatasunean du bere sorrera. Euskarak eta Euskal Herriak bezala "... Naffarroa garayan, Naffarroa

beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertze anhitz leccutan". Beraz, euskaldun guztion ikurra da nafar bandera, euskal erresuma burujabearena, euskalafar estatutaren.

Aurten, Tourrak Euskal Herriko/ Nafarroako Bilbo hiritik abiatuko dela eta, hainbat agintarik, antolatzailek eta mugimendu herritarrek Bilbo eta Baiona arteko errepideak ikurrinez eta txapelez betetzea eskatu digute: "Herri bakar bat eta batua irudikatu dezagun munduaren aurrean". Idatzi hau sinatzen dugunok bat gatoz asmo horrekin baina, aldi berean, Tourreko eta gainerako errepide, kale, herri eta auzo guztietan euskalafar bi banderak (ikurrina eta bandera nafarra) jartzea eskatu nahi dizuegu: euskalafar herritarren atxikimendua duen ikurrina eta Nafarroako euskal estatu burujabearen bandera. Horietaz gain, txapela, bisera, kapela edo boneta ere jantzi ditzala hala nahi duenak.

OHAR ETA DEIALDIAK

• 1968koen KINTADA, urriaren 21ean

1968an jaiotakoek kintada egingo dute urriaren 21ean. Goizeko 11:00etan autobusean irten eta Lekeition egingo dute paseo-poteoa. Ibaigane jatetxean bazkaldu eta dantzaldia egin ostean, 20:00etan itzuliko dira Oñatira. Ondoren (21:45) Izarraitz tabernan egingo dute afari/dantza festa, gorputzak aguantatu arte. Prezioa, egun osokoa, **90€** (bazkaria, afaria eta autobusa). Gauekoa bakarrik **22,5€**. Autobusean plaza mugatuak daude. Izen-emate epea: **uztailak 15**, Laboral Kutxan (ES3230350005300050087080) diru-sarrera egin eta **izen-abizenak** emanda.

Lizargarate Eguna abuztuaren 27an

Antolatzaileek aurreratu digutenez, abuztuaren 27an ospatuko da aurten Lizargarate Eguna. Urtero lez, hamai-ketakoa, herri kirol erakustaldia, bola-jokua, bazkaria, erromeria... izango dira, besteak beste. Laster jarriko dituzte salgai tiketak. Sare sozialetan emango dituzte xehetasun guztiak.



oñargi 

OÑARGI SL udal enpresa da,
Oñatiko Udalaren jabetzakoa, herrian elektrizitate
zerbitzua kudeatzen duena.

Instalazio elektrikoak, sareak, matxurak,
konponketak... gustuko badituzu,
hau da zure aukera

OÑARGI SL enpresarentzako
ELEKTRIKARI baten bila gabiltza

Interesatuok, jarri harremanetan:

onargi@onargi.eus
943780708

BEITA WEBSAILA MILAKA IKUSTALDI IZAN DITU SAREAN ZINTZILIKATU BERRITAN

Amuan harrapatuta

» XUP! antzerki taldearen **Beita** websailak ikusmin handia piztu du. Gaztea irratia-aren youtube-ko kanalean daude ikusgai zortzi atalak.

Websaila osatzen duten zortzi kapitulu-letatik lehenengo laurak bakarrik ikusi ostean idatzi behar izan ditugu le-erro hauek —hurrengo laurak uztaillak 2an estreinatze-koak ziren—, baina, egiari zor, orain arte ikusitakoa nahikoa izan da XUP! antzerki taldeko zortzi gazteek (Izar Mendiola, Malen Perez de Arenaza, Sara Arregi, Ander Murillo, Aitor Gomez, Paula Polo, Danel Teran eta Maddi Altolagirre) egindako lan bikainaz ohartzeko. Zorionak, beraz, taldekide guztiei eta inguruan izan dituzten laguntzaileei. Gu behintzat harrapatu gaitu, amuari kosk egitea lortu dute, eta irrikaz gaude, jada, azken

5,5K

ikustaldi ditu webserieak
Gaztearen Youtuben

lau atalak ikusteko.

Beita websailaz ari gara, noski, Irazan antzerki gunearen baitan sortu eta 2019az geroztik bere bidea egiten ari den XUP! taldeko kideek Interneterako ekoitzi duten fikziozko lanaz, alegia.

2019an egin zuen debuta

XUP! taldeak *Kontraizanak* antzezlanarekin, eta 2021ean itzuli ziren eskenatokira *Beita* lanarekin. Oso harrera ona izan zuen ikusleen aldetik, eta pena zen lan hura emanaldi bakar batera mugatzea. Baina antzezlanaren herriz herri eramatea oso zaila zen toki ezberdinetan ikasten ari diren gazte hauentzat, eta aukera ezberdinak aztertu ostean, antzokietatik pantailietara jauzi egitea erabaki zuten, antzezlanaren websail bihurtuz, jende gehiagorengana eta, bereziki, gazteengana iritsi ahal izateko modu horretan.

BI URTEKO LANA

Gidoia egokitzea izan zen aurreneko lana, ordubeteko iraupena zuen antzezlanaren bi orduko —15 minutuko 8 atal— websail bilakatuz. Horrek gaitan eta pertsonaiegan sakontzeko aukera eman die.

Sexu-eraso bat jasan duen gazte baten istorioa du ardatz *Beita*-k, baina gazteek egunerokoan bizi dituzten bestelako gai batzuk ere jorratzen ditu, hala nola: heldu-



tasun aurreratua, drogak, apustuekiko zaletasuna, harreman irekiak, sexu harremanetarako gizarte presioa... Denak ere gai delikatuak eta tentu handiz jorratu dituztenak.

Ikuspegi gazte eta feminista batetik sortutako lana da *Beita*, hausnarketa eragin gura duena, eta, gainera, plataforma digitalean gazteei zuzendutako euskarazko edukien arloan dagoen hutsunea betetzera datorrena. EITBk ere balioan jarri du Oñatiko gazteek egindako ekarpena eta, horregatik, Gaztea irrtiaren *Youtube*-ko kanalean ematea adostu dute, ahalik eta gazte gehienengana iristeko asmoz.

Goiz da oraindik balorazioak egiteko, baina dagoeneko milaka ikustaldi izan ditu websailak. XUP! taldekoak zain-adi daude zer nolako harreman duen jakin guran, baina garbi dago bi urte hauetako lana eta sortze ariketa bera ikasketa prozesu handia izan dela beraiantzat, eta jendeak era honetako produktuak ikusi nahi baditu, lanean jarraitzeko prest daude. ■

Pertsonaiak



Noa

Malen Perez de Arenaza

Lotsagabea eta askea da. Ikaragarri gustatzen zaio lagun taldeko protagonista izatea eta larrutan egitea bere pasioa da. Alex du bikotekide ordea, eta sexu harremanetan ez dira elkar ulertzen.

Alex

Izar Mendiola

Alexek ez du segurtasun handirik eta Noarekin duen harremanean islatuta ikusiko da hori. Oso barnerakoia da, izan ere, bere bizitza arriskuan jarriko duen sekretu handi bat gordetzen du.

Izaro

Sara Arregi

Neska jatorra eta baikorra da Izaro. Lagun taldeko gatza eta piperra. Ekiren etxeko parrandan gertatutakoak ordea, bizitza zeharo aldatu dio. Sexualki erasotua izan da.

Amets

Aitor Gomez

Herriko futbol taldean jolasten du eta nahikoa matxiruloa dela esaten dute. Ekiren mutil-laguna da. Kirola oso gustuko du eta horrek kirol-apustuetan jokatzera eramaten du.



Eki

Maddi Altolagirre

Eki pertsona alaia da eta oso harreman ona du bere lagunekin. Bere gertukoak laguntzeko prestutasuna du eta ongi daki bere lagunak entzuten eta hauei gomendioak ematen.

Lur

Danel Teran

Umezurtz geratu zen 17 urte zituela eta amonarekin bizi da orain. Amona zahartuta dago eta ardura guztien kargua hartu behar izan du Lurrek. Serioa eta arduratsua da, baina gogoko du parranda.

Eder

Ander Murillo

Edozer egiteko gai da bere gertukoak zaintzeko. Bere ama gaixo dago eta dirua lortu behar du etxeko gastuei aurre egiteko. Dirua lortzeko moduek aldiz, arazotan sartuko dute Eder.

Amaiur

Paula Polo

Lurren arreba txikia da. Golpe gogorra izan zen berarentzat gurasoen heriotza eta oraindik pisu handia du horrek bere bizitzan. Neska lotsatia da eta asko babesten da Lurrengan, baina, batzuetan, horrek bere ondorio latzak ditu



Gaztearen *youtube*-ko kanalean (eskaneatu QRa) daude ikusgai BEITaren 8 atalak.

IGERIKETA ANDONI GALDOS SANZ DE GALDEANO

Igeriketa pasio

» 3 urte zituela eraman zuen amak igerilekura eta, orduz geroztik, **bere bizitza igeriketari lotuta egon da**; igerilari moduan 20 urtera arte, eta epaile lanetan gerora.

» Sorbaldako lesio baten ondorioz **beso bakarrarekin igeri egiten ikasi behar izan du** eta aurtengo udan Bermeoko 5.000 metroko itsas-zeharkaldia osatzea du erronka.

Igeriketa zale amorratua da Andoni Galdos (Oñati, 1983). Zainetan kloroa daraman horietakoa, nolabait esatearren. Hiru urte zituela eraman zuen amak igerilekura eta, orduz geroztik, bere bizitza igeriketari lotuta egon da, modu batera edo bestera.

Igerilari aritu zen 19-20 urte bete arte, baina adina eta, batez ere, sorbaldako lesio baten ondorioz lehiaketak utzi eta orduantxe hasi zen epaile lanetan. "Gipuzkoako federazioak deia egin zuen, epaile beharra zegoela, eta Artzak animatuta eman nuen izena, beste bi oñatiarrekin batera. Azterketa bat gainditu genuen eta harrezkero nabil —ikasketak tarteko kanpoan egondako urteak kenduta— juez lanetan".

Gipuzkoa mailako liga

erregularreko probetan lau epaile egon ohi dira —hiru piszinan eta bat denborak apuntatzen— eta beraien egiteko nagusia izaten da igerilariak arauak betetuzten dituztela egiaztatzea. "Irteerak zaindu behar izaten ditugu, inor ez dadin denbora baino lehen atera edo tranpolinean mugitu; estiloak —beso eta hanken mugimenduak— egoki egiten direla zaindu behar dugu, estilo bakoitzak bere arauak dituelako, eta biraketa nahiz ailegaeran ere arauak betetzen direla zaindu behar dugu —adibidez tximeleta eta bular estiloetan esku biek ukitu behar da—. Eta arau hausteren bat ikusten badugu deskalifikatu egiten dugu igerilaria, baina horretarako oso seguru egon behar dugu; zalantza baldin ba-



Galdos, Oñati jokatu berri den Gipuzkoako txapelketan.

«Igeriketari laguntzeko ari naiz epaile gisa, beharra dagoelako, eta mutikoa nintzenean beste norbaitek egiten zuelako lan hori»

«Arnasa beste aldera hartzen ohitu behar izan dut, baina teknika baneukanez, ez da zaila izan beso batekin igeri egiten ikastea»

dago, igerilariaren alde egin behar dugu".

Kirol gehienetan bezalaxe igeriketan ere tarteka polemika eragiten dute epaileen erabakiek, guraso eta entrenatzaileen artean, batez ere, baina errespetu giroa izaten omen da nagusi.

Urritik ekainera bitartean bi edo hiru astean behin egoten da igeriketa lehiaketaren bat, eta ordainsari bat jasotzen duten arren, Andoni ez dabil epaile lanetan horregatik. "Ez. Igeriketa gustatzen zaidalako eta igeriketak aurrera egin

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



naiz (gehiegizko flexibilitatea daukat) eta igeriketan arlo hori asko lantzen denez, eskumako sorbaldara bere lekutik ateratzen hasi zitzaidan. Ebakuntza egin zidaten, baina arazo berarekin jarraitzen nuen eta igeri egiteari utzi behar izan nion, aldi batez".

Beste kirol batzuk (korrika, bizikleta...) probatzea erabaki zuen, baina gustura ez eta piszinara bueltatzea erabaki zuen. "Artzari esan nion beso batekin igeri egiten saiatu nahi nuela, baina lotsa ematen zidala, eta berak animatuta hasi nintzen, poliki poliki, esku batekin igeri egiten ikasten. Arnasa ezkerreko aldera hartzen ikasi behar izan nuen, baina, gainerakoan, igeriketako teknika baneukanez, ez zitzaidan zaila gertatu beso batekin igeri egiten ikastea. Metroak sartzea da kontua".

Krol eran hasi zen aurrena, baina gaur egun gai da estilo guztietan —bular, bizkar eta tximeleta— beso bakarrarekin aritzeko.

Piszinan ez ezik, itsasoan igeri egin zalea ere bada Andoni, eta, dagoeneko, hainbat itsas-zeharkaldi eginak ditu —beso bakarrarekin hauek ere—, baina aurrean koska bat gorago jarri nahi izan du erronka. "Betidanik gustatu izan zait trabesiak egitea, eta beso bakarrarekin hasi naizenetik 3.000 metrokoak egin izan ditut, baina Bermeon 5.000koa antolatzen hasi dira, eta horixe izango da aurtengo nire erronka partikularra. Irailaren 2an izango da eta aurretik beste lau edo bost trabesia egingo ditut". ■

dezan laguntzeko egiten ditut epaile lanak. Txikia nintzeanean beste norbaitek egiten zuen lan hori, eta gaur egun nik egiten dut beharra dagoelako, igeriketaren alde".

BESO BAKARRAREKIN IGERIAN

Esan dugun moduan Andoni igeriketan aritu zen ia 20 urte egin arte —Euskal Herriko txapelketan brontzea izatera iritsi zen 1500 Krolean—, baina sorbaldako lesio baten ondorioz lehiatzeari utzi behar izan zion. "Hiperlaxoa



ESPAINIAKO TXAPELKETA | BI PROBETAN LEHIATUKO DA

Ane Madina onenen artean lehiatuko da

Herriko kirolari gehienak oporretan dauden bitartean, Ane Madina igerilari gazteak denboraldiko hitzordurik garrantzitsuena izango du egun gutxi barru. Izan ere, udako Espainiako igeriketako txapelketan arituko da, Aloñako igerilaria.

Malagan jokatu da txapelketa uztailearen 26tik 30ra bitartean eta Ane, 50 eta 100 bizkar probetan lehiatuko da. Bosgarren urtez ikusiko dugu Madina udako estatuko probarik garrantzitsuenean. Aurrez, bi aldiz egona da udaberrikoetan, eta, aurrean, aurrenekoz, negukoetan ere lehiatu zen.

ITSAS-ZEHARKALDIAK | HASI DA DENBORALDI BERRIA

16 proba ezberdin izango ditu aurtengo Euskal zirkuituak

Uda garaia iristearekin batera, martxan da itsas-zeharkaldien denboraldi berria. Urteko beste hilabete batzuetan proba solteren bat egoten bada ere, Euskal egutegia, uztailearen 1ean abiatu zen. Lekeitioko 'Kilin-Kala zeharkaldia' eta Debako 'Flysh Beltza' izan ziren lehenak.

Distantzia eta zailtasun ezberdineko 16 zeharkaldi izango dira aukeran eta azken proba, irailaren 10ean egingo da Uribarri-Ganboako urtegian.

Urteroko legez, aurrean ere, Oñatiko igerilari dexente ikusi ahal izango ditugu proba guzti hauetan.



Oñatiko igerilariak, Ondarroan.



Merkealdiak / Rebajas

10% - 20% - 30%

BIZIKLETAK PATINETEAK KIROK EKIPAZIOAK

ULMA-Challenge

Emakumezkoen txirrindularitza sustatzea helburu

Kadete eta Junior mailako lasterketak jokatuko dira **uztailaren 15ean**. Goizean krono-igoera Bergaran, eta arratsaldean lineakoa Oñatin. Lau oñatiarrek parte hartuko dute kadete mailakoan.



Izaro Agirre,
Arantxa
Anduaga, Izar
Ezkibel eta
Maddi Oleaga
txirrindulari
oñatiarrak
eskualde
mailako
Lokatza-Igamo
taldean ari dira

Aloña Mendik emakumezkoen txirrindularitzari bultzada berri bat ematea erabaki du, ULMA taldearen laguntzarekin. Kontuan hartuz aurten Oñatiko lau neska ari direla Kadete mailan (Gipuzkoa osoan hogeitabat daude) emakumeei zuzendutako karrera berezi bat antolatzea erabaki du eta, hala, uztailaren 15ean jokatu den ULMA Challengea antolatu du Bergarako Lokatza txirrindulari eskolarekin elkarlanean.

Bi saio izango ditu ULMA Challengeak. Goiz partean krono-igoera jokatu da Bergaran (San Martzial igoera), 2 kilometro eskas baina aldapa oso gogorra (bataz beste %12ko pendiza) duen ibilbide gogorrean. Eta arratsaldean lineako probak jokatu dira Oñatin. Kadete mailakoa arratsaldeko 15:00etan hasiko da. Ulma Handling parean abiatu eta Bergarako joan-etorria egin ostean Santipillauko erripa igo eta Unibertsitate etorbidean egongo da helmuga. Gero, 16:30ak aldera, Junior mailako lasterketa jokatu da. Hauek ere Ulma Handling parean abiatu dira, eta Osintsuko joan-etorria egin ostean, Arregiko aldapa igo eta Unibertsitate etorbidean izango dute amaiera. Goizeko eta arratsaldeko denboren baturak erabakiko du azken sailkapen nagusia.

**Kadete mailako
lasterketa
15:00etan
hasiko da, eta
Junior mailakoa
16:30etan**

LAU OÑATIAR

Guztira, ehundik gora txirrindulari batzea espero dute antolatzaileek, Euskal Herrikoak ez ezik, baita estatu mailako beste herrialde batzuetakoak ere. Eta tartean lau oñatiar, kadete mailako lasterketan.

Aloña Mendin oso pozik daude lau neska animatu direla ikusita, baina taldea osatzeko gutxitxo zirela ikusirik —karreran kotxea eraman ahal izateko hiru txirrindulari behar dira, gutxienez— bailarako beste herri batzuetakoekin batu dituzte, Lokatza taldeak lehendik zeukan azpiegitura baliatuz.

Euskal Herrian ez ezik, Espainiako Kopako probatan parte hartzen ari dira (Leon, Pontevedra, Valentzia, Madil...) eta, egiari zor, maila polita ematen ari dira, kontuan hartuta pandemiako bi urteren ostean aurten hasi direla benetan lehiatzen eta tropelean ibiltzen. Espainiako Kopako probak amaitzea lortu dute, eta gustura dabilta, poliki poliki esperientzia hartzen.

Ea ba Oñatiko zaleok kalera ateratzen garen txirrindulari gazte hauek hauspotzera. Gogoratu, egun berean Kantoikrit lasterketa ere jokatu dela eta, beraz, egun oso polita izango dela txirrunduzaleentzat. Azpimarratzekoa eta txalotzekoa, baita ere, emakumezkoen txirrindularitza babestu eta sustatzeko ULMAk hartutako erabakia.



Kantoikrit uztailaren 15ean

Uztailaren 15ean jokatu da Kantoikrit kriteriuma, herriguneko kaleetan jokatu den pinoi finkodun bizikleten proba ikusgarria.

Emakumeen Etxeko obra dela eta ibilbidean aldaketatxo bat egongo da, Ona-ko kantaletik igaro beharrean, lkatz paretik joango dira txirrindulariak Aita Madina kalera. Iluntzeko 21:30etan irekiko da zirkuitoa eta 22:00etan hasiko da lasterketa. Lehiakideek 15 bira eman beharko dizkiote zirkuitoari (24km).

@ziklix_photo



Unai Cueva, podiumean

Grupo Eulen-Nuuk Jira-Bira taldean ari den Unai Cueva oñatiarra 3. sailkatu zen ekainaren 15ean Aizarnazabalen jokatu zen Gervais memorialean (Gipuzkoako erlojupeko txapelketa).



EUSKAL LIGARA

Handia egin du beste behin Aloña Mendiko areto futbol taldeak. Ekainaren 10ean jokatu zen iruko igoera fasea irabazita (Leioa 3-2 eta Gasteizko Calasanz 5-2 hartu zituen mendean) datorren urtean Euskal Ligan jokatzeko txartela poltsikoratu du. Hiru urtetan lortzen duten hirugarren igoera da. Zorionak!



TORREAUZOKO LASTERKETA

Mustapha Archaoui eta Ainara Urrutia izan ziren azkarrenak Torreauzoko XXIV lasterketan. Oñatiarrei dagokienez, Eric Martin (3.) eta Ainara Urizarri (3.) izan ziren lehenengoak. Guztira 201 korrikalarik parte hartu zuten.



UXUE OSES SASOI BETEAN

Sasoi bete-betean jarraitzen du Uxue Oses pilotariak. Ekainaren 24an Berria txapelketa irabazi zuen Leire Garairekin bikote osatuz, eta uztailearen 8an San Fermin txapelketako finala jokatu du Labriten, Olatz Arrizabalgarekin batera, Zabaleta-Gaminderen aurka.

MENDI IRTEERA

PIRINEOETARA

Ekainak 15 eta 16

Aloña Mendik bi eguneko irteera antolatu du Arango haranera.

UZTAILAK 15

Goizeko 5:30etan Oñatitik abiatu eta Artiesen (1144m.) hasiko da ibilaldia Restanca aterperaino (2016m.). Guztira 9,5 km. Lac de Mar-era txangoa egiteko aukera egongo da.

UZTAILAK 16

Restanca aterpean lo egin ostean (pentsio erdia) Montardo (2822m.) igoko dute, Artiesera jaisteko (18km / 832m+ / 1700m-), 7 ordu inguruan egitekoa. Izena emateko azken eguna, **uztailak 9** (alোনামেন্দি.মেন্দি@gmail.com). Prezioa, 90€. Izena eman ondoren Aloña Mendiren kontuan egin beharko da diru-sarrera, emango den kontuan. Plaza kopurua mugatuta dago (20 pertsona). Bazkideek izango dute lehenetasuna. Plazak ordainketa ordenaren arabera beteko dira.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



Donostiako Jazzaldian joko du Ramada Inn taldeak

Nauticool agertokian ariko da rock talde oñatiarra uztailaren 25ean, disko berria grabatu berritan

Hasi berri dugun hilabetea mugitua izango da *Ramada Inn* talde oñatiarrarentzat. Uztailaren 3, 4 eta 5ean Berako Atala estudioan egongo dira bigarren diskoa —*Real tree*, bost abestiko EPa— grabatzen eta, dagoeneko, hilaren 25ean Donostiako Jazzaldiaren baitan emango duten kontzertua prestatzen hasiak dira. Aurretik Abadiñon ere joko dute, uztailaren 20an, eta, berriki, Zizpa gaztetxeak

antolatzen duen Baionako Musikaren Besta jaialdian ere parte hartu dute.

Baina Donostiakoa berezia izango da, duen izenagatik, besterik ez bada ere. "Topikoa dirudien arren, kontzertu guztiek kriston ilusioa egiten digute, gustatzen zaiguna zuzenean aritzea delako, baina egia da jazzaldiak izena daukala, entzule moduan ere sarri egon gara, eta orain bertan jo ahal izatea aukera polita da eta gogoz gaude,

» *Uztaileko lehen asteen 5 abestiko EP berria grabatu dute Berako Atala estudioan*

bai", aitortu digu Juan Vallsek, taldeko abeslari eta gitarra joleak.

Musikan eta arte eszenikoetan talentu gaztea sustatzea helburu duen *Katapultatour* programan aurten hau-

tatu dituzten taldeetako bat da Ramada Inn, eta zirkuito horretan dauden taldeetako lau aukeratu ditu Donostiako Jazz Jaialdiak 58. edizioan parte hartzeko.

Ramada Inn taldeak iazko urte hasieran plazaratu zuen *Pills For Horses* diskoak izan duen harrera eta kritika onen erakusle da, eta ez bakarria, izan ere estatuko hainbat agerkari espezializatuk ere (*rocktotal.com*, *makma.net*, *exilesmagazine.com*) 2022-ko disko onenen zerrendan sartu baitute oñatiarren lehen diskoa.

HIRUKO FORMATOAN

Laukote gisa eratu zen Ramada Inn, eta hala grabatu zuten lehen diskoa, baina Iñigo Ugartek taldea utzi zuen duela hilabete batzuk eta orduetik hiruko formatoan ari dira —Juan Valls (gitarra eta ahotsa), Ander Etxaniz (baxua) eta Mikel Marco (bateria)—. Hala grabatuko dute disko berria, eta halaxe ariko dira jazzaldian ere, Nauticool agertokian (Donostiako klub nautikoaren ondoan) emango duten kontzertuan. *Pills For Horses* diskokoak ez ezik, Iñigo Irazokiren estudioan grabatu berri duten EP berriko kantak ere joko dituzte aurrenekoz jendaurrean. Agendan gorritz markatzeko moduko hitzordua, zalantza barik.

Aurreko diskoan bezala, 70eko rock amerikararen oihartzuna nabarituko dugu lan berriko abestietan ere, baina doinu azkarrago eta indartsuagoekin tartekatuz, Vallsek aurreratutako digunez. ■

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERHOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA


695 78 91 04 - 943 04 47 77



#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale



Ane Mertzeria



Ma Paz Aramburu



David Batzokia



1 "Euskal Telebistako programa batean koroak egiten ibili nintzen garai batean"



2 "Hongo bila atera nintzen behin Oñatin, eta basoan galdu egin nintzen"



3 "Gereziak biltzen aritu ginen hainbat lagun Herbeheretan, oporrak luzatu asmoz"

Jolastu, lotu eta dendariak ezagutu

Bete itzazu alboko hutsuneak. Erantzun zuzenak, hilean zehar publikatuko ditugu sare sozialetan.

1 2 3

KALEAN

UDAKO KULTUR EGITARAUUA

» Musika estilo ezberdinez eta espazio irekietan gozatzeko aukera izango dugu uztailan zehar, udaleko kultura sailak prestatu duen KALEAN egitarauaren eskutik. Ekainean izan dira aurreneko bi ekitaldiak (Musika Eskolako kontzertua eta Ganbara Faktoriaren 'Gerraren oihartzunak' ikuskizuna) eta orain, uztailako asteazkenetan kontzertu bana egongo da. Azken ekitaldia, Hortzmuga taldearen kale-ikuskizuna, irailaren 3an izango da.



► **UZTAILAK 5** / Lazarraga lorategia, 19:00

Pop elektronikoa, **Mirua** taldearen eskutik



Maitane Iruñ (ahotsa) eta Malentxo Zeberio (ahotsa) eta Mattin Zeberio (elektronika) anai-arrebek osatzen dute **Mirua** talde tolosarra. 2019an sortu zen taldea eta 2021ean Harrobia Saria irabazi zuen Gaztea irratiako maketa lehiaketan, *Koloreek* izaneko kantarekin. Gitarrak, hari-instrumentuak, pianoa eta sintetizadorea erabiltzen dituzte, pop melodia klasikoak elektronikarekin eta indie esperimentalarekin uztartuz. Gaztea lehiaketako sariak emandako bultzada baliatuz, iaz beraien lehen EPa grabatu zuten *Oso Polit*a diskoetxe bilbotarrarekin.

► **UZTAILAK 12** / Lazarraga lorategia, 19:00

Soul-funky doinuak, **Sara Azurzaren** ahotsean



17 urte zituela hasi zen Sara Azurza Eskisabel (Donostia, 1977) oholta gainean, ETBko *Kantuan* saioan parte hartu ondoren. Iker Laurobarekin eman zituen lehen urratsak, eta *Charlie and The Colours*, *Indigo* eta *Tristan Crowley* abeslari eta taldeekin aritu ostean bere bakarkako lehen lana (*Theorein*) plazaratu zuen 2018an, pop estilora hurbiltzen diren abesti akustiko eta lasaiekin. Azken bi urteetan bere estiloaren bila ibili da Bartzelona, Montreal eta Londres artean, eta urtarrilean kaleratu zuen *Hemen berriro* disko berria, pop-soul doinuak ez ezik, funkya eta elektronika ere tartekatzen dituzten bederatzik kanturekin.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

► **UZTAILAK 19** / San Lorentzon, 19:00

Kubako erritmoak euskaraz D'Caprichoren eskutik



Jatorriz Manzanillo (Kuba) hirikoak diren Danieuris eta Daniellis Moya Avila ahizpek osatzen dute **D'Capricho** taldea, pianoak lagundutako bi ahots ederrek osatua. Beraiek sortutako abestiak kantatzeaz gain, Kubako poeta handian testuak habanera, boleroa, sona, cha-cha-cha edo fusioaren bidez eman ohi dituzte, eta euskaraz kantatzen ere entzungo ditugu. Izan ere, ahizpetako bat Euskal Herrian bizi da, eta duela urte batzuk *Andrazkubak* diskoa plazaratu zuten, euskal idazleen (Leire Bilbao, Arrate Mardaras, Miren Agur Meabe) testuak musikatuta.

► **UZTAILAK 26** / Lazarraga lorategia, 19:00

Txomin Artolaren **Belar Hostoak** gaurkotuta




Walt Whitman poeta estatubatuarraren *Leaves Of Grass* liburutik zenbait testu euskaratu eta abesti bilakatuta **Belar Hostoak** diskoa plazaratu zuen Txomin Artolaren 1978an. Orain, Bilboko Loraldia festivalak egindako proposamenaren eskutik, disko hura berrinterpretatu du Urbil Artolak eta bere taldeak (Dani Venegas, Andoni Etxebeste, Antxon Sarasua eta Jon Gurrutxaga). 1978ko disko hartako kantuak berrikusi eta bere erara moldatu ditu boskoteak, haren esentzia mantenduz, baina, era berean, ikuspegi musikal berri bat emanaz.

► **IRAILAK 3** / Errementari plaza, 19:00

Itsasora jaurtitako hondakinei eta sare sozialen arriskuei buruzko kale-antzerkia

Aurtengo 'Kalean' programa borobiltzeko, *Hortzmuga* taldearen **Agurea, urpekaria eta itsasoa** antzezlanaz gozatzeko aukera izango dugu irailaren 3an. Elkar ezagutzen ez duten bi pertsona elkartuko ditu itsasoak. Ulises agureak urteak daramatza itsasoa isuritako hondakinak biltzen eta bigarren bizitza bat ematen. Felix urpekaria itsasoko erronka zentzugabeenak gauzatzeagatik ezaguna da sare sozialetan, eta ez da mugikorraren pantailatik haratago ikusteko gai. Ikasketa pertsonalean eta tolerantzian oinarritutako abentura, familia osoarentzat eta umorez josia.






COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS



AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



BILERA IREKIAK

UZTAILAK 12 / 18:30

EMAKUMEEN ETXEA

Parte-hartze prozesuan erabakitako Emakume Etxearen barne antolaketa aurkezteko saio irekia. [Eltzian](#)

IKASTAROAK

OÑATIKO KZgune-ko IKASTAROAK

'WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean'; 'BakQ ziurtagiria'; 'Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi'; 'Zure bidai planifikatu'; 'Kudeatu zaituz Google aplikazioekin'; 'Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean'; 'Erosketa eta ordainkea segurua Interneten'. Informazioa eta izen-ematea tutor.onati@kzgunea.net / 943023672 .

JAIK

UZTAILAK 21, 22 eta 23

SANTXOLOPEZTEGIKO JAIKAK

UZTAILAK 29

LEZESARRIKO JAIKAK

ABUZTUAK 4, 5 eta 6

SAN LORENTZOKO JAIKAK

ABUZTUAK 10-11

LARRAÑAKO JAIKAK

ABUZTUAK 15-16

URREXOLAKO JAIKAK

KONTZERTUAK

UZTAILAK 5 / 19:00

MIRUA

Maitane Iruiñ eta Malentxo eta Mattin Zeberio anai-arreben pop elektronikoa, 'Kalean' egitarauaren baitan. [Lazarraga lorategian](#)

UZTAILAK 12 / 19:00

SARA AZURZA

Sara Azurza donostiarren soul-funky doinuak, 'Kalean' egitarauaren baitan. [Lazarraga lorategian](#)

UZTAILAK 19 / 19:00

D'CAPRICHIO

Danieuris eta Daniellis Moya ahizpa kubatarren kontzertua, 'Kalean' egitarauaren baitan [San Lorentzoko ermita aurrealdean](#)



Conductus Ensemble taldeak kontzertua emango du Arantzazun, Musika Hamabostaldiaren baitan

ABUZTUAK 23 / ARANTZAZUKO BASILIKAN - 19:00

Donostiako Musika Hamabostaldi ibiltariak Arantzazun egingo du geldialdia aurten ere. Oraingo honetan Conductus Ensemble taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu abuztuaren 23an, Arantzazuko basilikan (19:00). Antonio Vivaldiren (1678-1741) musika eskainiko dute, besteak beste *Gloria* eta *Magnificat* obra ezagunak. Sarrerak (18€/13€) salgai daude jada <https://tickets.quincenamusal.eus> helbidean

UZTAILAK 26 / 19:00

BELAR HOSTOAK

1978an Txomin Artolak kaleratu zuen diskoaren berrinterpretazioa, Urbil Artola buru duen taldearen eskutik. [Lazarraga lorategian](#)

OSPAKIZUNAK

UZTAILAK 15 /

ARRANO ELKARTEAREN 40. URTEURRENA

Urteurren Eguna ospatuko dute Arrano elkarteak. 13:00 Flamenco ikuskizuna herriko plazan (La Pulga eta Lagunak); 15:00 Bazkari herrikoa; 19:00 Elektrotzaranga (Diatopia); Gauean musika (DJ Caino) Arrano tabernan.



TRIANAKO JAIKAK

UZTAILAK 7

19:00 Astotrastoren jaitsiera. Ondoren, txorimalo eta erraldoiak; 19:00 TOTAL-Boliviarrak pintxoak; 19:30 Presoen aldeko elkarretaratzea; 22:00 Kontzertuak (Malko + Etxepe + Azid).

UZTAILAK 8

12:00 Haurrentzako marrazki saioa eta sari banaketa; 13:00 Kontzertua ('Topakord 2023' Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak); 15:00 Ilinti kafea; 16:00 XLIII. Mus txapelketa; 17:00 Ur pistola gerra (norberak berea eraman); 19:00 Txorimalo eta erraldoiak; 19:00 TOTAL-Boliviarrak pintxoak; 20:30 Kontzertua (Sukena); 23:00 Kontzertua (Muxutruk erromeria + DJ Edozer); 00:00 Bikote jolasa, photocall-a eta zizka-mizkaka.

UZTAILAK 9

10:00 Goiz eresia; 13:00 Oñatz taldeko gaztetxoaren emanaldia; 15:00 Auzo bazkaria; 18:00 Potx eta Lotx paliazoak; 21:00 Xolonpon omenezko traka

HERRIKO JAIXAK DEIALDIAK

JAI BATZORDEA

San Migel eta Errosarixo jaiak antolatzen hasteko batzar irekia egingo da uztailaren 4an, kultur etxean, 18:30etan.

JAI EGITARAUAREN AZALA

Jai egitarauaren azala aukeratzeko deialdia. Lanak aurkezteko azken eguna: **uztailak 16** (kultura.idazkaritza@onati.eus). 18 urtetik gorakoentzat. Formatu digitala soilik. Internet bidezko bozketa librea egingo da irabazlea hautatzeko eta 500€-ko saria jasoko du.

HERRI EGUNEKO TALO TABERNA

Herri Eguneko talo taberna kudeatzeko interesa duten taldeek **uztailaren 7a** baino lehen eman behar dute izena: kultura.idazkaritza@onati.eus / 943780353. Bere ardura izango da horniketa osoa eta irabaziaz ere taldearentzat izango dira.

HERRI EGUNEKO ARTISAU AZOKA

Herri Eguneko artisauen erakusketa-azokan parte hartu nahi dutenek **uztailaren 3tik 16ra** eman behar dute izena www.onati.eus webgunean egongo den formularioa betez.



Biblioporrak gida

Udako BIBLIOPORRAK gida argitaratu dute Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Legazpi eta Oñatiko udal liburutegiek elkarlanean. Adinka (0-6 urte, 6+, 9+, Gazteak eta Helduak) sailkatutako 40 liburu eta bosna CD eta DVD gomendatzen dira bertan. Uztaila hasieran herriguneko etxe guztietara banatuko da gida eta udal liburutegian eskura daitezke bertan gomendatzen diren dokumentuak.

Liburuak

0+ URTE

1-5 URTE

6+ URTE

GAZTEAK

HELDUAK

0+ URTE

1-5 URTE

6+ URTE

GAZTEAK

HELDUAK

GAZTEAK

HELDUAK

FILMAK

MUSIKA

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Uztailak 1, 2, 10 eta 11. Abuztuak 17, 21, 23, 25, 26, 27, 29 eta 31.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Uztailak 3, 4, 12, 13, 17, 19, 21, 22, 23 eta 27. Abuztuak 2, 4, 5, 6, 8, 10, 14 eta 16.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Uztailak 5, 6, 14, 15, 16, 18, 20, 24, 26, 28, 29, 30 eta 31. Abuztuak 1, 3, 9, 11, 12 eta 13.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Uztailak 7, 8 eta 9. Abuztuak 18, 19, 20, 22, 24, 28 eta 30.

MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA salgai San Juan kalean. Deitu: 608 77 10 61.

GARAJE bat alokatu edo erosi nahi nuke Portu kafetegitik hurbil. Deitu: 610 466 020

ETXEKO LANAK Oñatiko emakumea etxeke lanak egiteko gertu: 645703721

OHARRA Merkatu txikiko iragarkiak doakoak izaten dira. Zurea bidali nahi izatera >> kontzejupetik@onati.eus

ODOL ATERALDIA

UZTAILAK 7 / 16:30-20:30 MU-ko Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**

Herriko txoko guztietara iritsi nahi duzu?

Jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> EUSKERAZ EGOGI

Deklinabidia (eta V) Birdeklinaziñua

Zer da, ba, birdeklinaziñua? Berbia behin baiño gehixagotan deklinaitia; izan leike deklinaziñoko bi edo hiru kasu eranstia bata bestiaren atzetik. Normalian Nor, Noren eta Nungo kasuak eransten dira. Noren kasua betik birdeklinau leike: *Joxeparena [Joxepana], neriarekin [neriak], lagunarenian [lagunanian]...*

-KO erantsi leikixo kasu askori: *egurrarendako [egurrandako], egurrezko, etxerako, etxerunzko, etxeraiñoko ...* Eta orduan berriz deklinau leike: *egurrarendakua [egurrandakua], egurrezkuakin...*

Birdeklinaziñua, hortaz, kasu askotan ebalten dogunez, ikusi degigun noiz dabilgun:

a) Lagunen edo famelixako pertsona-izenakin, gaitzizenakin edota gaiñerako izen arruntakin: *Juantxorenian, amandriarenian, amarenetik, aitta-amarenera, tio/osaba Pedrorenian, tiarenetik/izekorenetik, alabiarenian, semiarenenera, medikuarenian, no-tarixuarenera...*

b) Establezimendu bat aittaketarunzkuan, baldin eta haren izenak edo gaitzizenak pertsona bateri edo famelixa bateri egitten baxao erreferentzia (*Luis, Migel, Pepeitto, Altuna, Irizar, Ibarrondo, Sillero, Sesiñena*); baiña establezimenduaren izena arrunta edo propixua bada, (*Aker, Iker, Aloña Mendi, Garoa, Oreka, Haritza, Izarraitz*) edo marka komertzial bat bada, (*Ulma, Hiru Thermic, Oñabike, Decathlon*) orduan deklinaziñoko kasu soillak ebalten dittugu: '*Luisenetik nator*' (Luisen tabernatik) edo '*Migelenera noia*' (Migelen panaderixara), baiña '*Ulmatik nator*' edo '*Oñabikera noia*'.



Luisena, Luisenetik, Luisenera, Luisenekuak...



Silleroena, Silleroenetik, Silleroenera, Silleroenekuak... (-re- ezta esaten)

c) Etxe baten gaiñian berbetan gabiltzianian be ebalten da birdeklinaziñua, baiña, orduan be, etxe horretan bizi dan pertsoniaren izena, gaitzizena edo abizena aittaketan bada, (*Lukas, Otsua, Galarza*); bestela, ez. Orduan, '*Lukasenian egon naiz*', (Lukasen etxian) edo '*Galarzareneko askok mediku urten daue*', (Galarza famelixiaren etxeko askok), baiña '*aiuntamentura, alondigara, sindikatura edo cajadeahorrosera noia*'.



Gomendiorena, Gomendiorenetik, Gomendiorenera, Gomendiorenekuak... (-re- ezta esaten)



Galarzarena, Galarzarenetik, Galarzarenera, Galarzarenekuak... (-re- ezta esaten)

d) XIX. eta XX. gizaldixaren hasieran industrializaziñua aillegaitiaz batera, herriko famelixa askok sortutako taillertxuak euren izena hartu euen, hau da, famelixiarena. Taillertxuak edo fabrikatxuak famelixa izena ekuaiñez, deklinaitterunzkuan birdeklinau egitten ziran (Altuna, Arregi, Arrue, Chinchurreta, Garay, Gereka, Ezpeleta, Onraita ...) eta gaur egunian be hala bihar dau.



Altunarena, Altunarenean, Altunarenetik, Altunarenekuak... (-re- ezta esaten)



Chinchurretarena, Chinchurretarenian, Chinchurretarenetik, Chinchurretarenekuak... (-re- ezta esaten)

e) Herriko zenbait etxe dotore izentaitteko be birdeklinaziñora joten dogu, baldin eta etxia pertsona edo famelixa izen batekin lotuta badago; bestela, ez. Hortaz, 'Garayrenetik nator' edo 'Donpedrorenekuak Bilbora fan ziran bizi izatera', baiña 'Goizeko izarrekuak kanpua dira' edo 'Ibargira noia' edo 'Lauaizetatik nator'.



Garayrena [Garayñena], Garayrenetik, Garayrenera, Garayrenekuak... (-re- ezta esaten)



Donpedrorena [Donpedruena], Donpedrorenetik, Donpedrorenera, Donpedrorenekuak... (-re- -ue- bihurketan da)



Oñati Irudiak, Arrasate Argitan Kultur Elkartea, 2005

Hortaz, goguan hartu:

OKER	ZUZEN
<i>Chinchurretan pasau da hori</i>	<i>Chinchurretarenian pasau da hori</i>
<i>Keia Garaytik dator Garayn egingo dira etxe barrixak</i>	<i>Keia Garayrenetik dator Garayrenian egingo dira etxe barrixak</i>
<i>Altunakuak Txopekuan dira</i>	<i>Altunarenekuak Txopekuan dira</i>
<i>Moyuatik egin dostai diar lanerako</i>	<i>Moyuarenetik egin dostai diar lanerako</i>
<i>Oiñetakuak Agapitton, Cayon eta Leten konponketan ziran, eta gaurko egunian Kantuereñian</i>	<i>Oiñetakuak Agapittoreñian, Cayoreñian eta Leterenian konponketan ziran, eta gaurko egunian Kantuen</i>
<i>Txorin topauko dozu deporterako errofia</i>	<i>Txorireñian topauko dozu deporterako errofia</i>

Oharra: (-re- ezta esaten). Esan: [Chinchurretarian, Garayñetik, Garayñian, Altunarenekuak, Moyuarenetik, Apittonian, Cayonian, Leterenian, Txoriñian...]

 **ULMA**



**elkarrekin
bidea eginez**

ULMA EMAKUMEZKOEN KIROLAREKIN BAT

ULMA - CHALLENGE

uztailak 15

I OÑATI EMAKUMEEN SARIA ETA VI. SAN MARTZIAL IGOERA - BERGARA HIRIA SARIA

· EUSKADIKO EMAKUMEZKOEN KADETE ETA JUNIOR KATEGORIAK ·